



KULTUR ANIZTASUNA ETA
EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

**NON DAUDE
MARRA GORRIAK?**

Belodun emakumeak Nork du zilegitasuna haiek epaitzeko?

Pena izan da. Mahaian hiru baino ez dira aritu berriketan. Laugarren bat, Muna, gure artean izango zela uste genuen. Azken momentuan ezin izan du etorri. Emakume musulman batzuek janzten duten beloak sortzen duen eztabaidaz hitz egin nahi genuen, eta hara non azkenean, zapia erabiltzen duen bakarrak kale egin digun.

Eguskizak, Uriak eta El Halouik ez dute erabiltzen buruko mantelina, baina ez daude debekuaren alde. Ahulenen kontra, alegia, gure artean bizi diren emakume musulmanen kontra, azkenaldian sortzen ari den diskurtsoaz oso zuhur hitz egin dute.

38 arropa-neurrian sartu nahian dabiltzan emakume mendebaldarrak musulmanei lezioak ematen hasteko ez daudela uste dute, eta burujabetzaren bidean, onena, emakume bakoitzaren prozesua errespetatzea dela.

Hanka puntetan dabiltza hirurak gaia lantzerakoan, badakitelako emakume musulmanak hormaren aurka jarrita piztia elikatzen dela, hau da, islamofobiari jaten ematen zaiola.

■ **Egilea: Onintza Irureta Azkune**
Argazkiak: Irantzu Pastor

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria. **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (0034) 943 371 545. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa · ARGIAren 2.535. zenbakiarekin banatua, 2016ko abenduaren 25ean.



Ezkerretik eskuinera, Aitziber Eguskiza, Afaf El Haloui eta Isabel Uria, Bizkaia Irratiko egoitzan.

Zergatik uste duzue hemen bizi den emakume musulmanak beloa daramala?

AITZIBER EGUSKIZA: Lehenengo gauza, iruditzen zait oso desberdina dela mantelinaz, burkaz edo burkiniaz hitz egitea. Zergatik janzten duen beloa? Haietako bakoitzari galdetu beharko nioke. Hori da nire erantzuna. Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu. Nik nortasunarekin lotzen dut, kultur nortasunarekin, baita erlijioarekin ere. Hori da nik daukadan ideia, baina milaka adibide egongo dira. Emakumeak ez darama zapia beti bere nortasuna aldarrikatzeko. June Fernandez kazetariak elkarriketatu zuen emakume kubatarrek, Yasminek, [Yasmín Silvia Portales Machado] zapia darama eta ez da nortasunagatik. Orokorrean uste dut nortasuna defendatzeko dela, defendatzeko eta aldarrikatzeko. Baina berriro diot, nire ustea da.

Jatorria agerian utzi nahi dute?

A. EGUSKIZA: Ez dakit jatorria den kontua, batzuk hemen jaioak baitira.

ISABEL URIA: Nik emakume bati galdetuko banio zergatik daraman mantelina, nahiko nuke berak erantzutea, “feminista naizelako eta nahi dudana janzten dudalako”. Bitxia da, beste emakume batzuei ez diegu galdetzen zergatik daramaten bularraldea agerian, minigona, takoidun zapatak edo makillajea. Bat-batean mundu guztiari otu zaio galdetzea zergatik emakume jakin batzuek arropa jakin bat daramaten. Egia da, nortasun ukituak, erlijio ukituak ditu, eta baditu ezagutzen ez ditugun arrazoiak. Hala ere, nor gara gu emakume horiek buruan zer jarri behar duten eta zergatik erabakitzeke?

AFAF EL HALOUI: Batzuk nortasunagatik. Hor daudela adierazi nahi dute. Beste batzuek erlijioak esandakoa bete nahi dute. Erlijio musulmanaren barruan klaseak daude eta klase bakoitzak bereari erantzun nahi dio, batzuek zapia jartzen dute, beste batzuek, nikaba, beste batzuek ezer ere ez. Badira zapia janzteari utzi diotenak, ireki egin direlako, eta erlijioa praktikatzeari utzi diotelako. Beraz, janzkera abaniko osoa ikusiko dugu, erlijio praktika intentsitatearen arabera, fede gehiago edo gutxiago.

Zergatik uste duzue janzkera horiek debekatu nahi dituztela?

A. EGUSKIZA: Galdera hori entzunda beste gal-

dera bat etortzen zait burura: Zergatik uste duzu nahi dela abortatzea debekatzea? Horrela kokatu nahi dut gaia, emakumeen gorputza kontrolatu nahi dute. Patriarkatuaren estrategia da, gure gorputza ikerketagai da, gure gorputzaz komentarioak egin daitezke, iritzia eman daiteke, eta gainera, gure gorputzak borroka zelaiak dira. Emakumearen gorputzarekin zerikusia daukan guztiaz hitz egin behar da, eztabaidatu behar da, zalantzan jarri behar da, zeren horrek esan nahi du gu erabakiak hartzen ari garela, autonomoak garela, eta badirudi gizarte honek eta botereak ezin dutela jasan.

Celia Amorósek [filosofo eta saiogile feminista] zioen denak berdinak bagina bezala erakustea

M a h a i k i d e a k



■ AITZIBER EGUSKIZA

Feminista eta antiarrazista

1977an jaio zen Bilbon eta Donostian bizi da. Bizkaiko SOS Arrazakeriako kidea izan da hainbat urtez. Donostiako Emakumeen Etxean ere ibilia da. Ikasketa feministak eta generokoak masterra egin du EHUn.



■ AFAF EL HALOUI

Ahizpatasuna Euskal Herriko eta Marokoko emakumeen elkarte

Marokoko Sale hirian jaio zen 1977an. Duela zortzi urte Espainiara joan zen eta duela bi urte Bilbora heldu zen. Duela bi urte eta erdi Ahizpatasuna Euskal Herriko eta Marokoko emakumeen elkarte sortu zuen. Munduko Emakumeak eta Sare Lesbianistako kidea da. San Frantzisko auzoko koordinatzaileetako bat da.



■ ISABEL URIBIA

Brujas y diversas

66 urte ditu eta Bilbon bizi da. Brujas y diversas eta Munduko Emakumeak taldeetako kidea da. Euskadiko Gobernu Kanpoko Erakundearen koordinakundean genero taldean ari da lanean.

nahi dela. Gero eta gehiago ari gara aldarrikatzen aniztasuna eta badirudi enbarazu egiten duela, eta askoz gehiago ez bagara ari kultura hegemonikoaz, Europako zuriaz, heterosexualaz, jabeaz, disfuntziorik gabeaz... Sistemari interesatzen ez bazaio kanpora, edo debekatu, edo ezkutatu.

I. URIA: Heteropatriarkatuak beti kontrolatu nahi ditu emakumeen gorputzak eta bere sexualitatea. Batzuetan estali egiten du gorputza, beste batzuetan agerian uzten du, hondartza nudistan arropa kentzen gendelako harriak botatzen zizkiguten berak dira orain esaten ari direnak zapia daukan emakumeak ez zaiola utzi behar autobusera igotzen. Berberak dira, guk zer jantziko dugun, zer kenduko dugun, nolakoak garen, gure burua nola erakutsi nahi dugun, kontrolatu nahi duten gizonak dira. Egiten duzuna egiten duzula, bularraldea erakutsi ala estali, hankak depilatu ala ez, haien bedekapea behar duzu. Beloarekin horixe ari gara ikusten. Mendebaldean gaudenez, okerren daudenak eta diskriminatuenak direnak gure lagunak dira, beste kultura batzuetakoak, hemen bizi direnak. Haien janzkera daramatelako mendebaldeko gizontxoek, gaur egun boterea dutenek, estigmatizatuak dira.

A. EL HALOUI: Zapiak, hijabak... horiek denek emakume musulmanarekin dute lotura eta komunitate batengana heltzeko modurik errazena ahulenaren bidez egitea da, alegia, emakumearen bidez. Gaur egun mundu mailako politika islamaz dago kezkatuta, herrialde musulmanak eraso nahi dituzte, eta emakumearen bidez ari dira egiten. Lelokeriez ari gara, zapia jantzi ala ez, debekatu ala ez, ikaragarria iruditzen zait. Emakumeak utzi behar zaio berak erabaki dezan zer nahi duen eta zer ez. Munduan chunka erlijio eta sinesmen daude, errespetatu behar dira. Gero, pertsona bakoitzak bere prozesua egingo du bizitzan, eta hobetzen joango da. Emakume musulmanek presio bikoitza dute, bata haien herrialdean edo kulturaren, eta bestea mendebaldera etortzen direnean.

Debekuaz hitz egiterakoan heteropatriarkatua aipatu duzue, baina eredu horretan kokatzen ez direnak ere ari dira zalantzan jartzen zapiaren erabilera, debekatzea komenigarria den ala ez...

A. EL HALOUI: Feminista musulmanak ari dira lanean. Haiek beste era batera bizi dute, barruan daude. Ez daude ados emakumeak estaltzearekin, gizonaren aginduei men egitearekin... Korana berrirakurtzen ari dira, testu misoginoak kentzea bultzatzen. Beste ikuspegi batekin ari dira borrokan, jakina, ez lehen esan dugun heteropatriarkatuaren testuinguruan, emakumearen gorputza kontrolatu nahian. Adibidez, haien galderetako bat da zergatik emakumeak estali behar diren eta gizonak ez. Estalita ere emakumeak objektu direla argudiatzen dute, “estali egin behar garagizonengan desioa ez eragiteko?”.

A. EGUSKIZA: Fatema Mernissifeminista marokotarrak “El harén en Occidente” liburuan 38 arropa neurriaz hitz egiten du, emakumeen gorputzak kontrolatzeko modua da bere ustez. Bestetik, emakumeek zapia daramatela gizonen objektu sexual ez izateko? Ikusi ditut emakumeak goitik behera estalita eta gizonak aldamentetik txistuka.

Mantelina jarriko badut arrazoi askogatik jarriko dut, eta izan daiteke sinbolo patriarkala, 38 neurria den bezala, baina agian ez. Errazena epaitzea da. Nor naiz ni beloduna bizitza guztia dieta egiten ari den emakumea baino zorrotzago epaitzeko? Dietak gure lasaigarria dira.

I. URIA: Mendebaldeko emakumeon zapia da.

A. EGUSKIZA: Zapia daramatenek agian ez dute dietaren arazorik.

A. EL HALOUI: Bai, bai, dietaren arazoa ere badute, arazo berdinak daukate. [barrez ari dira hirurak].

I. URIA: Globalizazioaren ondorioak!



Afaf El Haloui: "Garbi dago, hona iristen garenean, gugandik espero dena da berriz ikasi behar ditugula gauzak, hemengo kulturara moldatzeko". Irudian bi emakume kultur aniztasunaren alde egindako jai batean.

I. URIA: Onintza, zuk egindako galderari berriz helduta. Heteropatriarkatuak zatituta nahi gaitu, horrela garaituko gaituelako. Munduan bizi den milioika musulman horietatik zati garrantzitsu bat European dago. Elkarrekin bizitzen ikasi beharrean, nola zatitu bilatzen ari dira. Gauza harrigarriak aurkitzen dituzu, adibidez heteropatriarkatua ari da saltzen Afganistan bonbardatze-
ra joan dela neskek burka jantzi beharrik izan ez dezaten. Gezur hori entzun dugu. Irak inbadituko dugu hango emakumeak... baina han emakume medikuak zeuden, katedratikoak zeuden... Dena suntsitu dute. Zergatik? Petrolioaz baliatze-
ko.

Gizarte hau hobetzeko ahaleginak egiten ditugun mugimenduen zirrikituak bilatzen dituzte, feministen eta homosexualen bideak baliatzen

dituzte, adibidez. Eta hala diote: musulmanak oso gaiztoak dira, zeren horiek emakumeekin, feministekin eta homosexualekin sartzen dira. Niri ez zait ondo iruditzen emakumeekin eta homosexualekin sartzea, baina hipokrisia iruditzen zait heteropatriarkatuak kontatzen diguna; hark esaten digu zer dagoen gaizki kultura batzuetan, eta guk onartu egiten dugu. Batzuetan arrazoi du, egia da, herrialde eta kultura batzuk emakumeen eskubideen kontra ari dira, esate baterako Saudi Arabia. Alabaina, Dakarretik Yakartara estatu musulman piloa dago. Indonesian emakumeak gizonen berdinak dira, laikoak diren estatuetan orain dela bi egun arte, Tunezen eta Turkian adibidez, gizon eta emakumeentzat eskubide berak zeuden. Errealitate horiek ez zaizkigu interesatzen. Norbaitek erabaki du behatza sartu behar duela eta horretan ari da.

Kultura europarrean munduaren zilborra izan nahian segitzen al dugu?

A. EGUSKIZA: Gauzak zalantzan jartzea gustatzen zait, hain daukagu heziketa sexista eta arrazista. Ez badugu hausnartzen betiketuko dugu sistema heteropatriarkal eta arrazista. Zergatik da hain erraza beloa zalantzan jartzea? Botere posizioan gaudelako gu.

I. URIA: Mendebaldeko gizon zuriak arrazionalak, objektiboak, neutroak, gardenak dira, zer dagoen ondo eta zer gaizki esaten dutenak. Beraz, mendebaldeko emakume zuriek, ez badute ezer zalantzan jartzen, uste dute beraiek ere gardenak, neutroak eta arrazionalak direla. Bitxia da, gizonak emakumeei esan digutena, alegia, haiek arrazionalak / gu irrazionalak, haiek askatasunaren alde borrokan / gu mendekoak, haiek zientzia egiten dute / guk magia edo horrelako zerbait... beste kulturetako emakumeekin errepikatzen ari gara. Ez baitugu ikusten gure motxila. Aitziberrek esan duen moduan, zalantzan jartzen hasten bagara, guk zein motxila daramagun konturatzen bagara, nondik hartua den ohartzen bagara eta ez badugu onartzen gizonak egin digutena, orduan jabetuko gara ez dugula gauza bera nahi beste emakumeentzat.

A. EL HALOUI: Eurozentrismoa bizi dugu guk bai, haiek dakite dena. Niri lehenengo egunetan gertatu zitzaidan. Politikaz zerbait esan nahi nuen eta ondokoak esan zidan, “zuek ez duzue hortaz ulertzen”. Nik orduan ez nuen ondo hitz egiten gaztelaniaz, eta harrituta gelditu nintzen, nola ez dugula politikaz ulertzen? Garbi dago, hona iristen garenean, gugandik espero dena da berriz ikasi behar ditugula gauzak, hemengo kulturara moldatzeko. Baina guk ere badakargu gurea, guk ere badaukagu gure jakintza.

A. EGUSKIZA: Bera entzunda hitz batzuk etortzen zaizkit burura. Nola erabiltzen ditugun “gu” eta “besteak” hitzak. Garrantzitsua da jabetzea oraindik badirela “besteak”. Gogoratu behar



Isabel Uria

Bitxia da, beste emakume batzuei ez diegu galdetzen zergatik daramaten bularraldea agerian, minigona, takoidun zapatak edo makillajea. Bat-batean mundu guztiari otu zaio galdetzea zergatik emakume jakin batzuek arropa jakin bat daramaten

dugu, emakumeez hitz egiten dugunean, “gu” esaten dugunean haiek ere hor sartu behar ditugula. Beste hitz bat: zaurgarritasuna. Pribilegio gutxiago dituzte eta zailtasun gehiago dituzte ikusgarriagoak izateko eta komunikatzeko (sarri hizkuntza ere ez dute menderatzen). Beste hitz bat: gutxiestea. Nola gutxiesten dugun emakume bat haren itxuragatik, zapia daramalako, azal ilu-



Afaf El Haloui

Utz iezaiezue emakumeei beraien emantzipazio prozesua egiten eta ez gehiago biktimizatu. Hemen zapia jantzita ateratzen den emakumeak badaki zer egiten ari den, berak jantzi nahi du"

nagoa daukalako, ezgaitasun fisikoa daukalako. Lelotzat hartzen dugu, patriarkatuaren biktimizat, joera orokorra da gizarte honetan. Berak ez daki, eta irakatsi egin behar zaio, eta lagundu egin behar zaio. Borondate ona oso arriskutsua da, bi aldiz biktimizat hartzen ari gara. Asistentzialismoan, paternalismoan, erortzen gara.

A. EL HALOUI: Horrek min handia egiten du. Horregatik baino ez dira gugana gerturatzen, nire bizipenengatik diot. Laguntzera datoz, eta kito, hor geratzen da kontua. Ez dira gerturatzen zu ondo ezagutzeko, laguntasun harreman bat sortzeko. Lagundu, lagundu eta lagundu, diruarekin, ostatuarekin, konpainiarekin... eta kito. Zu hor eta ni hemen.

Gauza bat da onartzea ez dagoela ikuspuntu bakarra, eta beste bat ikuspuntu guztiak onargarriak direla pentsatzea. Beste kulturetatik datozen guztia onargarria al da? Emakumeen eskubideak ardatz hartuta beste kulturetako hainbat bizimodu eta ohitura ez dira ontzat hartzeko modukoak.

A. EGUSKIZA: Feministometroa hitza datorkit gogora.

Eta zer esan nahi duzu horrekin?

A. Eguskiza: Inkoherentzia aldarrikatu nahi dut. Emakumeen prozesuak errespetatu nahi ditut. Niretzat begien bistakoa izan daiteke, irudi gogorak datozkit burura, lepoan eraztunak gehitzen doazen emakumeak adibidez, eta agian berak ez du horrela bizi, eta bere prozesua egitea behar du. Beharbada nik beharko dut nire prozesua egin, nire aurreiritziak ikusteko. Zenbat eta gertuago egon errealitate batetik are erlatiboagoa dela konturatuko naiz.

Marra gorriak ez al dago?

A. EGUSKIZA: Egongo da. Ablazioaz gogoratu naiz. Nik ezin dut esan orokorrean mutilazioaren kontra nagoela. Ulertu egin beharko dut zer egiten den, zergatik, nola egiten duten emakumeek, nik ez dut sentitzen nire burua legimitatuta praktika bat debekatzeko. Debekatzek kontrako efektua lortzen du. Landu dezagun sentsibilizazioa.

I. URIA: Landu dezagun kontzientziazioa.

A. EGUSKIZA: Mantelinak emakumeen eskubideak urratzen ditu? Ez. Muga jartzekotan emakumeen eskubideetan jarriko dugu, giza eskubideetan, eta gogoan izan behar dugu giza eskubideak ere mendebaldeko asmakizuna direla. Beti abiatzen gara mendebaldeko ikuspegitik. Munduko beste toki batean kokatzen banaiz, ziurrenik, beste era batera ikusiko dut. Hemen eta gaur emakumeari beloa janztea debekatzea, emakume horren giza eskubideak ukatzea da. Ez diogu uzten berak nahi duen bezala janzten. Burka beste gauza bat da.

I. URIA: Marra gorri nabarmenak daude: giza eskubideak, gizonenak, emakumeenak, neska-toenak eta mutikoenak. Giza eskubideak ezin dira bortxatu. Bortxatuko badira, egin daitekeen guztia egin behar da saihesteko, baita debekatu ere. Ablazioa dela, tratu txarra dela, edo giza eskubideen aurkako gauza argi bat dela. Baina arropa? Gauzak bihurtzea dela iruditzen zait. Ez da serioa. Janzkera, eta beste hainbat ohitura, bakoitzak bereak ditu, giza eskubideak ukitzen ez diren bitartean aurrera. Zeren bestela hona etorri direnei guk hemen dauzkagun giza eskubideak haiei ukatzen ari gara. Nola ukatuko dizkiot eskubide horiek hona datorrenari bere kulturen ez dakit zer egiteko ohitura dagoelako?

A. EL HALOUI: Desberdina den orok beldurra ematen du. Emakume arabiarrek hainbat arrazoiengatik janzten dute beloa. Nik ez dut onartuko debekatzea, eta ni ez nago zapia jartzearen alde. Pertsona bakoitzak bere prozesua egin behar du, pertsona bakoitzak eskubidea dauka bere burua zalantzan jartzeko eta bere prozesua egiten uzten badiogu, ziur iritsiko dela momentu bat non bere gorputzaz hausnartzera iritsiko den. Nik emakume marokoarrak ezagutzen ditut gehienbat, eta badakit gauzak zalantzan jartzen ari direla, matxinatzen ari direla. Iritsiko da egun hori. Ez dut gehiegi esan nahi, baina hasita dago mugimendua, nik ilusio handia daukat. Katalunian bertan emakumeak meskitan sartzeko eska-

tzen ari dira, haien ekintzak egin nahi dituztelako. Palestinan emakume juduak, kristauak eta musulmanak atera dira kalera bakearen alde. Utz iezaiezue emakumeei beraien emantzipazio prozesua egiten eta ez gehiago biktimizatu. Hemen zapia jantzita ateratzen den emakumeak badaki zer egiten ari den, berak jantzi nahi du, badaki kalean biktimizat hartuko dutela. Zapia jartzera derrigortutakoak badira, baina gutxi. Nerabe, gazte eta senarrarengana etorri berri diren emakumeetan antzematen da hori. Denbora behar dute irekitzeko, elkarbizitzeko, eta lortuko dute prozesua egitea.

A. EGUSKIZA: Oso modan dago islamofobiaz hitz egitea hedabideetan. Terrorrea da, eraso egingo digute. Amerikako Estatu Batuei kopiatu diegu, beldurraren kultura. Eta bat-batean mantelina daraman emakume batek...

I. URIA: Bonba jar dezake!

A. EGUSKIZA: Edo seko ergela da edo terrorista izan daiteke. Badakigu hemen zer esan nahi duen terrorista hitzak, estigmatizazioari dagokionez.

Ez daude emakumeen eskubideez kezkatuta beraz.

I. URIA: Bonbardatzeko baliatzen ari dira, petrolio ia doan hartzeko. Guk beldurra izan behar dugu.

A. EGUSKIZA: Moroak gaiztoak dira, arriskua dira, bonbak jar ditzakete. Nekatuta nago.

Lehen 38 neurria aipatu duzue eta mendebaldeko emakumeok bizkarrean daramagun motxilaz ere hitz egin duzue. Beste kulturetako diskriminazioa kritikatzeko dugu, baina mendebaldeko emakumeek ere zapalkuntzak bizi ditugu. Legitimatuta gaude besteen zapalkuntzez hitz egiteko?

A. EGUSKIZA: Depilazioa datorkit burura.

I. URIA: Niri ere bai, ikaragarria da.

Baina legitimatuta gaude?

A. EGUSKIZA: Legitimatuta gaude sareak sortzeko, kontatu dizkiguten arazoez interesatzeko, eta ez epaitzeko, ez gaude legitimatuta pentsatzeko arrazoi absolutua daukagula, salbatuko ditugula. Uste dut lehen ere esan dudala hau, baina iruditzen zait oso ohikoa dela horrela jokatzeta eta ez zait gustatzen.

I. URIA: Gizakiak uste baino antzekoagoak gara. Emakumeok, saltzen diguten beldurraren eta banaketaren aurrean, senidetasuna eraiki dezakegu.

Galderan motxila aipatu duzula, zertaz ari garen azaltzeko adibide bat emango dut. Lehenengo sufragistak iparramerikarrak izan ziren eta kuakeroetatik zetozen. Emakumeen burujabetzaren aldeko borrokan, motxilan, jatorri kuakeroa zeukaten, nahiko zorrotzak ziren. Sekula izan den mugimendu feminista puritanoenetakoa izan da. Guri antzeko zerbait gertatzen zaigu. Belorik ez daramagu, baina gure Euskadi puritana hor daukagu, eta puritanoak ez diren lagunekin, haien bularralde biluziekin edo minigonekin zorrotzak gara. Kultura bakoitzak bere motxila dauka. Ez badugu norberaren motxila ikusten, aurreiritziz aurreiritzi ibiltzen gara. Aldiz, ikusten badugu, elkar hobeto uler dezakegu.

Afaf, zuri galdera beste era batera egingo dizut. Lezioak ematen ari garela sentitzen duzue? Nola jantzi behar duzuen erabakitzen ari gara.

A. EL HALOUI: Ez da arropa kontua soilik. Norberak ez du bere burua ikusten, bestea ikusten du. Esaera marokorrek hala dio, gameluak ez duela bere konkorra ikusten, beste gameluaren konkorra baizik. Era batera edo bestera, emakume guztiok bizi dugu heteropatriarkatuaren presioa, denok, ez dugu askatzea lortu [irribarre txiki bat eginez beste biei begiratu die]. Denok ari gara borrokan askatasun gehiago lortzeko.

Hemen emakume musulmanak biktimizatu egiten dituzue, eta biktimizatu baino gehiago ergeltzat hartu. Hijaba duen emakumeari lagundu egiten zaio, dena oparitzen zaio. Zergatik ez duzue mailan jartzen? Elkarrekin egingo ditugu gauzak? Beste jarrera horrek min handia ematen dit. Emakume marokor eta euskal herriarren elkartean horixe lantzen dut, zeren hainbeste lagunduta, emakume gutxik lortu dute gizarte honetan aurrera egitea, hemengoekin harremanetan jartzea. Mendebaldeko emakumeek dena egiten diete. Denok ditugu hankak, besoak eta burua.

A. EGUSKIZA: Garrantzitsua da esan duzuna, gutxiesteko dugun arriskua. Bebe abeslariak hala dio, “zenbat eta gehiago heltzen didazun orduan eta beldur gehiago dut erortzeko”.

Hainbat herrialde musulmanetako feminista batzuk kritikatzan ari dira European beloa ez debekatzearen alde emandako iritziak. Haiek diote beloa, nikaba... herrialde askotan ez direla ez ohitura (beste herrialde batzuetatik kopiatu dituztela berriki) ezta sinbolo erlijioso ere (Koranak halakorik ez dioelako). Jantzera diskriminatzaileak direla eta haien herrialdeetan jantzeria derrigortzen dituztela diote. European debekuaren aurka eginda ez dietela haiei batere laguntzen.

I. URIA: Orain dela bi egun arte Egipton, Turkian, ez zuten zapirik jantzen. Orain bai. Istanbulen emakumeak zapirik gabe zebiltzan, liburu denda feministak zeuden.

A. EL HALOUI: Feminista islamistak ahalegin handia egiten ari dira Korana berrirakurtzeko eta egia da eraso egiten zaiela egiten ari diren lanagatik. Ez dira ari lanean kanpotik, barrutik baizik, eta babestu egin behar dira. Horrek ez du esan nahi European era bateko eta besteko arropak eramatea debekatu behar dugunik.

A. EGUSKIZA: Nik uste dut diskurtsoa zaindu behar dugula. Zein efektu lortuko dut gurean,

sinbolo patriarkalen kontra nagoela edo erlijioen kontra nagoela bakarrik esanez hitz egiten badut, gure testuingurua kontuan izan barik? Zein da LARRUNeko irakurleengan dudak eragina esaten badut erlijio guztiak misoginoak direla? Zeren hori ere esatea badaukat. Gurean islamofobia handia dugula oso argi daukat. Piztiari jaten ematea litzateke. Ez zait interesatzen. Kanean pertsonak ikusi nahi ditut, haiekin hitz egin, galdetu. Lagun batek kontatu zidan entzun zuela nola dendari batek bezeroari galdetu zion ea ez al zen garaia zapia kentzeko.

A. EL HALOUI: Inori ez zaio esan behar zer egin behar duen. Nik nire prozesua egin dut eta gaur egun ez naiz musulmana. Bide hau ez dut egin hemengo jendeari plazer emateko, niregatik egin dut, horrela egin behar nuela pentsatu dut. Nik zapia dutenekin egiten dut lan eta asko maite ditut. Kontraesana dela uste dut zapia eramatea, baina ez diot inori esaten mantelina kentzeko.

A. EGUSKIZA: Harropuzkeria da.

I. URIA: Ez da debekatu behar.

A. EL HALOUI: Nire alabak bihar zapia jarri nahi badu ez diot esango ez jartzeko. Ni alaba modu batez hezten ari naiz, baina berak jakingo du zer egin nahi duen.

A. EGUSKIZA: Ohiturak aldatzeko edo berrasmatzeko denbora asko behar da, begira Gabonak, ohitura kristauak dira eta hor dira. Prozesuan lagundu beharko diozu emakume horri, baina ez esan zer egin behar duen. Zuk esan diezaiokezu zure bidean zer egin duzun, nola moldatu zaren.

A. EL HALOUI: Guk ere ikasi behar dugu hemengotik, zuen ohiturak errespetatu behar ditugu, gureak errespetatzea nahi dugu eta. Elkar errespetatzen badugu, agian, elkarbizitzara iritsi ere egingo gara. Orain jokatzeko ari garen moduan gorrotoa eragiten ari gara. Eta amorrua, musulmanek gero eta amorru gehiago dute



“ Aitziber Eguskiza

Oso modan dago islamofobiaz hitz egitea hedabideetan. Terrorea da, eraso egingo digute. AEBei kopiatu diegu, beldurraren kultura. Eta bat-batean mantelina daraman emakume bat edo seko ergela da edo terrorista izan daiteke”

eta hala hitz egiten dute: “Zertan ari dira? Hau debekatu bestea debekatu, hedabideetan idatziz... musulmanengan beloak baino ez dituzte ikusten!”. ■

Aliza Purreu

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta

BARATZEA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA TORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HIZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...



ANTTON OLARLAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA




UNAI ITURRIAGA




UNAI GAZTELUMENDI

AINARA AZPIAZU "AXPI"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda
edukia@bizibaratzea.eus

EROSI IOI ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN

19'50€

18€

harpidedunentzat



 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus